

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4502

EBAZPENA, 2017ko irailaren 13koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena. Honen bitartez, 2017. urterako laguntzak ematen zaizkie Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta erakunde horiei atxikitako pertsona juridikoei, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko.

Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2017ko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez (ekainaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 105. zk.), Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeentzako eta horiei atxikitako pertsona juridikoentzako 2017. urterako laguntzen deialdia egin zen, hain zuzen ere nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 8. artikulua horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2017ko irailaren 13ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2017ko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren erakundeei diru-laguntzak ukatzea, funtsak agortu direlako.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal zaio, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 13a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2017ko irailaren 18a, astelehena

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKAERAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Tokiko bulegoa	Bekadunaren NAN zk.	Diru- laguntza
NBE-2017BA/0011	Euskal Herriko Unibertsitatea	Onu Mujeres- Dominikar Errepublika	72318027R	18.600 €
NBE-2017BA/0003	Asociación Unesco Etxea erakundea -Centro Unesco País Vasco	Unesco- Guatemala	78893151T	18.000 €
NBE-2017BA/0008	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco- Peru	72487200D	18.000 €
NBE-2017BA/0021	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco- Costa Rica	79368727M	18.000 €
NBE-2017BA/0017	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- El Salvador	72060919X	18.600 €
NBE-2017BA/0005	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco- Senegal	51478749B	18.720 €
NBE-2017BA/0012	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- Senegal	16088034V	18.720 €
NBE-2017BA/0020	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco - Zimbabwe	Y3112613Z	18.000 €
NBE-2017BA/0010	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco Costa Rica	78957483R	18.000 €
NBE-2017BA/0002	Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	Unicef- Guinea-Bissau	72468137J	18.000 €
NBE-2017BA/0016	Euskal Herriko Unibertsitatea	FAO- Txile	33561352M	18.720 €
NBE-2017BA/0004	Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	Unicef- Guinea-Bissau	72318865B	18.000 €
NBE-2017BA/0006	Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	Unicef- Etiopia	78941973Q	18.000 €
NBE-2017BA/0009	Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	Unicef- Bolivia	72479357D	18.000 €
NBE-2017BA/0019	Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	Unesco-Zimbabwe	72528209D	18.000 €
NBE-2017BA/0013	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- Etiopia	Y1612722E	18.000 €

ERAKUNDE ESKATZAILEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, PRESTAKUNTZARAKO ETA BEKEN KUDEAKETARAKO

Erakunde eskatzailea	Diru- laguntza
Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	2.160 €
Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco	3.780 €
Euskal Herriko Unibertsitatea	2.700 €

2017ko irailaren 18a, astelehena

II. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKAERAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Tokiko bulegoa	Bekadunaren NAN zK.	Ukatzeko arrazoia
NBE-2017BA/0007	Fundación Unicef Comité Español. EAEko egoitza.	Unicef- Etiopia	78951983K	Funtsak agortzea
NBE-2017BA/0015	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- Cabo Verde	45909005Q	Funtsak agortzea
NBE-2017BA/0014	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- Etiopia	72541949H	Funtsak agortzea
NBE-2017BA/0018	Euskal Herriko Unibertsitatea	Fao- Guatemala	Y1352270E	Funtsak agortzea